

Abarak

UNAI BREA

Ingeles kaxkarra abantaila denean

O Brother, where art thou? filmaren soinu-banda. Hainbat egile. Mercury Records. 61 minutu. 2000.

COEN ANAIEN pelikulekin seme-alabekin bezala gertatzen zait: arreata handiz begiratu behar diet akatsen bat ikusteko, eta hala ere ezin. Beldur naiz, hortaz, Minnesotakoenganako miresmenak haien lanaren kritika zintzoa egitea eragozteaz. Eta horregatik aipatzeke utziko ditut, oraingoan bederen, *O Brother!* film luzearen alderdi bikain gehienak, eta haren musikari lotuko natzaio bakarrik.



Hein handi batean *O Brother!*-en soinu-bandari esker deskubritu nuen –eta harekin liluratu– bluegrass musika, country-aren azpisail bat. Seguruenik antzeko zer edo zer jazo zitzaion beste askori; AEBetan beretan, genero horri bultzada handia eman zion pelikulak, kritikarien esanetan.

Ez dakit filmaren eragin horri zor zaion, baina bertan entzun daitekeen kantetako bat euskaratua du Pil Pil taldeak. *Hegaldaka* da euskal bertsoia, eta baxenafarren disko bakarrari izena ematen dion kanta da, hain zuzen. Estatuatuak jatorrikoak, berriz, *I'll fly away* du izenburua. Itzulpen zuzena, itxuraz. Baina ez fidatu itxurekin: euskarazkoak preso baten askatasun amets bezala dihardu, ingelesezkoak Jainkoaz. Horretaz konturatzean ohartu nintzen bluegrassak Bible Belt delakoa daukala sorlekua. Pelikula beste abesti batzuen hitzak Interneten bilatu, eta bat baino gehiagotan topo egin nuen AEBetako hego-ekialdeko fundamentalismo protestantearekin.

Iban Zalduak esan berri du, aldizkari honek egindako elkarrizketan, pop kanta askoren hitzek ez dutela gutxieneko kalitate labelik, eta musikari esker salbatzen direla. *O Brother!*-en kanten hitzen kalitatea ez dut nik epaituko, oraindik ere oso gustokoa izatea ahalbidetu didan arrazoi beragatik: nire ingelesa ez da hain ona, kasu honetan zorionez. ■



Atxaspi Hotela



Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com